



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 7a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00001. Foru-lege proposamena, Nafarroako Parlamentuak Langileen Estatutua erreformatzea proposa diezaion Diputatuen Kongresuari. Izapidetzeko ez onartzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

—11-25/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat presta dezan muga-zergek lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izan dezaketzen inpaktuari buruz. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00044. Galdera, urtarrilaren 30eko greba deitu zuten sindikatuen eskaerei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00049. Galdera, oinarritzko gizarte-zerbitzuetako profesionalen egoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00050. Galdera, emakume gazteen aurkako sexu-indarkeria geldiarazteko neurriei buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00051. Galdera, arnas aparatuko infekzioengatiko ospitaleratze-datuei buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (9. or.).

—11-25/PES-00044. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).

—11-25/PES-00045. Galdera, “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).

- 11-25/PES-00046. Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00047. Galdera, Oronoz-Mugairin izanzen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00048. Galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00049. Galdera, Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00050. Galdera, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00001. Foru-lege proposamena, Nafarroako Parlamentuak Langileen Estatutua erreformatzea proposa diezaion Diputatuen Kongresuari

IZAPIDETZEKO EZ ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko sarrera-erregistrora 2025eko urtarrilaren 8an iritsi zen idazkiaren bidez, Imanol Pascual Ariz jaunak eta Saioa Urriza Larrayoz andreak legegintzako herri-ekimen bat aurkeztu zuten ELA, LAB, ESK, STEILAS eta HIRU sindikatuen izenean, "Langileen Estatutuaren Legearen testuategina aldatzeko, autonomia-erkidegoei eskumena aitortzeko lanbide arteko gutxieneko soldata berekia ezartzeko, Espainiako Konstituzioaren 150.1 artikuluan ezarritakoaren arabera".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen Legebiltzarreko zerbitzu juridikoei txosten juridikoa eskatzea, legegintzako ekimen horren onargarritasunari buruzkoa.

Zerbitzu juridikoei 2025eko urtarrilaren 31n emandako txostenean ondorioztatzen da legegintzako ekimen horren xedea dela lan arloko legegintzako ekimen horren gainera eskumena Estatuarena ez beste inoren dela (Espainiako Konstituzioaren 149.1.7) eta Nafarroako Foru Komunitateari eskumen betearazlea dagokiola (Foruaren Hobekuntzaren 58.1). Eskumen-banaketa horren arabera, Herriaren Legegintzatekimenaren arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen 2. a) artikuluan ezartzen diren eskusio-kasuen artean sartzen da ekimen hori,

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudenzian ezarritakoarekin bat.

Hori dela-eta, martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen 5. artikuluan nahiz Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 169. artikuluan ezarritako eginkizunak betetz, Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DU:

1. Izapidetzeko ez onartzea ELA, LAB, ESK, STEILAS eta HIRU sindikatuen izenean Imanol Pascual Ariz jaunak eta Saioa Urriza Larrayoz andreak aurkeztu duten legegintzako herri-ekimena, zeinaren bidez aldatu nahi baita "Langileen Estatutuaren Legearen testuategina, autonomia-erkidegoei eskumena aitortzeko lanbide arteko gutxieneko soldata berekia ezartzeko, Espainiako Konstituzioaren 150.1 artikuluan ezarritakoaren arabera".

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea, martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Erabaki hau –bai eta erabakiaren oinarri den 2025eko urtarrilaren 31ko txosten juridikoa ere– Imanol Pascual Ariz jaunari eta Saioa Urriza Larrayoz andreari jakinaraztea, zeinak ELA, LAB, ESK, STEILAS eta HIRU sindikatuen izenean jardun baitira, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan.

Jarraipena egingen duen batzordea: Ekonomia eta Ogasuna.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontu orokorrak dira foru-sektore publikoko diru-sarreraren eta gastuen urteko aurreikuspena jasotzen duen dokumentua. Gobernuaren politika ekonomikoaren tresna garrantzitsuenetako bat da, bertan jasotzen bai-

tira politika publikoen helburu estrategikoak eta horiek betetze aldera esleituriko baliabideak.

Zergadunek ordaintzen dituzten zergak dira aurrekontuen finantzaketa-iturri nagusia. Zerga horiekin finantzatzen da gure Ongizate Estatua, horiekin finantzatzen dira ondasun eta zerbitzu publikoak eta, gainera, justizia eta ekitate printzipioak gauzatzen ahalbidetzen dute, Administrazioak herritar guztiei eskatzen dizkien ekarpen solidarioen bitartez.

Gure ustez, demokrazia aurreratu batean funtsezkoa da gardentasun ariketa bat egin eta zerbitzuen xedea eta kostua ezagutzea, ulertzeko, baita ere, gure erkidegoko bizi kalitatearekin bat datorren foru zerga-sistema bat izateko beharra. Hori dela eta, zergen balio sozialen inguruko kontzientziazela bat egin behar dugu, era oso pedagogikoan azaldu zergek gure ongizateari eta bizi-mailari ekarzen dizkieten onurak.

Ziurrenik sarritan galdetu diogu gure buruari zein den eskola-garraioaren kostua ikasleko, eskola-etapa bakoitza zenbat kostatzen den ikasleko, zenbateko kostua duen unibertsitateko matrikula batek bekarik ez blego, zein den tratamendu mediko edo farmakologiko baten kostua... Eta hala hainbat eta hainbat adibide, gure bizitzari lotuak, baina, batez ere, galdetu behar diogu gure buruari ea hori guztia ordaindu ahalko genukeen finantzaketa publikorik gabe. Ikusten dugunez, zergek eginkizun nabarmen soziala dute.

Hori dela eta, eta Nafarroako herritarrek zergen balio sozialaren inguruan kontzientzia har dezaten, bai gure eguneroko bizitzarako, bai elkarrekin aurrera egiteko, PSN-PSOEn uste dugu beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak informazio-kanpaina bat sustatzea, gai izan dena erakusteko gure erkidegoko zergadun guztiek, bai pertsona fisikoek bai enpresek, finantzatutako ondasun eta

zerbitzu publikoak izateak nafarren bizitzeki ekarzen dizkien onuren askotariko adibideak. Nafarroko gure zergen xedeari eta Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren zerbitzuen egiazko kostuari buruzko informazioa eduki behar dugu uneoro.

Bestalde, beharrezkoa da gogora ekartzea iruzur fiskalak kalte ekonomikoa eragiten duela Foru-komunitatearen diru-sarreretan, administrazioek ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko duten ahalmena murrizten duela, gainera zergadunentzako zerga-presioa areagotzen duela eta, enpresa mailan, lehia desleiala sortzen duela. Finean, zerga-iruzurrak ondorio ezin okerragoak ditu gizarte osoarentzat.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hauek aurkeztu ditu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean ematen diren ondasun eta zerbitzuen kostuari buruzko informazio-kanpaina bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan Nafarroako herritarrentzako hiritar-nahiz tributu-kontzientziazte programak eta zerga-iruzurraren aurkako neurriak sustatzen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 29an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/MOC-00009. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat presta dezan muga-zergak lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izan dezaketen inpaktuari buruz

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat presta dezan muga-zergak lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izan dezaketen inpaktuari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat

presta dezan muga-zergak lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izan dezaketen inpaktuari buruz.

Estatu Batuen eta Europar Batasunaren merkataritza-gatazkaren esparruan, Donald Trumpen administrazioak muga-zergak ezartzeko aukera iragarri dela-eta, horrek eragin kaltegarri esanguratsua izanen luke Espainiako hainbat ekoizpen-sektoretan. Zehazki, nekazaritzako elikagaiena izanen da gehien kaltetutako sektoreetako bat. Egoera horrek zuzeneko eragina izanen luke Nafarroako ekonomian. Gure erkidegoko jarduera ekonomikoa ardoa, oliba olio, gaztak eta barazki-kontserbak bezalako produktuen esportazioaren mende dago neurri handi batean.

Nafarroako nekazaritza-elikagaien sektorea ezaguna da bere produktuen kalitatea eta jasangarritasunagatik, eta nazioarteko merkatuetan duen posizioa defendatu behar da merkataritza desitxuratu eta desberdintasunak sortzen dituzten alde-bakarreko erabakien aurrean. Nafarroaren kasuan, Nafarroa Jatorrizko Deiturako ardoa, Erronkari edo Idiazabal gazta eta beste produktu esanguratsu batzuk ezinbestekoak dira gure erkidegoko ekonomia eta nortasunarentzat. Gainera, Nafarroako nekazari eta abeltzainek funtsezko eginkizuna dute landa eremuaren jasangarritasunari eta bizitasunari begira, kalitate handiko tokiko produktuen ekoizpena

bermatu eta lurraldearen garapen sozioekonomikoari laguntzen baitiote.

Muga-zerga horiek, Nafarroako produktuek merkatu estatubatuarren duten lehiakortasuna murrizteaz gain, eragin negatiboa izanen dute tokiko balio-kateetan eta nekazariak, kooperatibak eta enpresa txiki eta ertainak kaltetuko ditu. Gainera, muga-zerga horiek arriskuan jarriko lukete Nafarroan ezinbestekoak diren sektoreen jasangarritasun ekonomikoa.

Estatu Batuekin merkataritza-harremana duten Nafarroako enpresak adi daude Donald Trumpek nazioarteko merkataritzari muga-zergak aplikatzeko duen asmoa dela-eta. Herrialde hori seigarren agertzen da Nafarroaren esportazioen helmugen artean, eta 416 milioi eurotik gorako inbertsioa jaso zuen azken urtean. 2023an, Nafarroako 580 enpresek esportatu zituzten beren produktuak Estatu Batuetara, esaterako, automozio-osagaiak, izoztutako barazkien gisako elikagaiak, makineria elektrikoa eta altzairuzko edo galdaketa-ko artikuluak.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentua Trumpen gobernuak ezar litzakeen muga-zergen aurka dagoela adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes irmoa agertzen dio gure erkidegoko lehen sektoreari (nekazariak, abeltzainak eta nekazaritzako elikagaien enpresak).

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nafarroako lehen sektorearen interesak defenda ditzan Europar Batasunean eta nafar ekoizleak babesteko neurriak har daitezzen exiji dezan, Trumpek ezar ditzakeen muga-zergek izan ditzaketen ondorio negatiboen aitzinean.

4. Nafarroako Gobernuari eskatzea txosten bat egin dezan, muga-zergek lehen sektorean eta nekazaritzako industrian izanen luketen inpaktuari buruz, bertan jasota zer konpentsazio-neurri hartu beharko liritekeen muga horien ondorio kaltegarriak arintzeko.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00044. Galdera, urtarrilaren 30eko greba deitu zuten sindikatuen eskaerei buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, urtarrilaren 30eko greba deitu zuten sindikatuen eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu aurtengo urtarrilaren 30eko greba deitu zuten sindikatuek egiten dituzten erreklamazioez eta departamentuaren eskaintzen aurrean egiten dituzten erreklamazioez?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-25/POR-00049. Galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen egoerari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Urtarrilaren 23an, gizarte zerbitzuetako 152 profesionalak salatu zuten "presioak eta mehatxuak" jaso izana lanean ari zirela.

Zer ari da egiten Gobernua egoera larri hori zuzentzeko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-25/POR-00050. Galdera, emakume gazteen aurkako sexu-indarkeria geldiarazteko neurriei buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, emakume gazteen aurkako sexu-indarkeria geldiarazteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oraintsu aurkeztu da Nafarroako Emakume Gazteen kontrako Sexu Indarkeriari buruzko I. Azterketa.

Azterketa horren ondorioak ikusita, INAI/NABIk zer neurri hartuko du gure erkidegoko emakume gazteen kontrako indarkeria geldiarazteko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-25/POR-00051. Galdera, arnas aparatuko infekzioengatiko ospitaleratze-datuei buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, arnas aparatuko infekzioengatiko ospitaleratze-datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Arnas aparatuko infekzioek intzidentzia handia izan dute Nafarroan azkenaldian –gripea, COVID-19a, pneumonia...–, baina ematen du jaisten ari direla arnas aparatuko infekzioak eta igotzen ari direla, berriz, gripeak eta COVID-19ak eragindako ospitalizazioak. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Zeintzuk dira aipatutako infekzio horiei buruzko datu gaurkotuak eta zer dela-eta igo dira, zuen informazioaren arabera, gripeak eta COVID-19ak eragindako ospitalizazioak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-25/PES-00044. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

PES-00016 galderari emandako erantzunean (haren bidez jakin nahi zen ea Prodigioso Volcán enpresak noiz bidali zuen egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa, dagozkien material entregagarriekin), Gobernuak adierazi zuen kasuko txostenaren lehenbiziko bertsioa 2024ko azaroaren 29an aurkeztu zela.

– Zenbat bertsio egon dira?

– Zerk eragin zuen bertsio bat baino gehiago egotea?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00045. Galdera, “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Nor izan zen “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzailea, zeinarengatik 2.541 euro ordaindu baitziren?

– Zer lan egin zuen?

Azalpenak xeheki eta ahal den modurik zehatzenean ematea eskatzen dut.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00046. Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024/2025 ikasturte honetan hasi da Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxe publikotan, ikastetxe horietan 2/3 urteko ikasgelak ireki baitira.

– Zein da ikasgela esperimental horietako bakoitzeko ikasle-kopurua?

– Departamentuak zer balorazio egiten du ikasgela horiek ireki izanari buruz?

– Eredu hori heldu den ikasturtean ezartzeko zer aurreikuspen darabilzue? Zer ikastetxetan ezar liteke?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/PES-00047. Galdera, Oronoz-Mugairin izanen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Oronoz-Mugairin izanen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko urrian egin zen iragarpena ikusita, non adierazten baitzen berriz hasi dela Oronoz-Mugairiko LHko etorkizuneko ikastetxearen beharrianak definitzeko prozesua,

– Zer bilera egin dira eskualdeko eragileekin iragarritako prozedura horri segida emateko?

– Hezkuntza Departamentuak zer proposamen aurkeztu ditu eta zein izan da eragileen erantzuna?

– Zein da ikastetxea abian jartzeko aurreikusitako ekintzen egutegia (ekintzak eta data zehaztuta)?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/PES-00048. Galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketek buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketek buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak darabilen informazioaren arabera, Lan Ikuskaritzan nahiz beste edozein entitate edo organismoan salaketarik jarri al da 2024an eta 2025ean gaur arte Nafarroako Gobernuak, enpresa publikoetako nahiz fundazio publikoetako langileek edo langile ohiek ustez pairatutako edota egindako laneko jazarpeneko kasuak direla-eta? Zenbat, zer departamentu edota enpresa edota fundazio publikotako pertsonen inguruan eta zein egunetan gertatu dira?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00049. Galdera, Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreaki, idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Barañaingo eguneko zentroa eraikitzeko proiektuak 24 hilabete darama geldirik. Jakin nahi dugu zer dirulaguntza eman duen Nafarroako Gobernuak zentro hori eraiki dadin: zenbatekoa, datak, Barañaingo Udalak dirulaguntza horiek jasotzean hartutako konpromisoak bete dituen/bete ez dituen, konpromiso horiek ez bete-

tzeak izan litzakeen ondorioak eta ea zure departamentuak zer egin duen edo eginen duen Barañaingo herritarrentzat hain garrantzitsua den proiektu hori burutzen laguntzeko.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-25/PES-00050. Galdera, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Europar Batasunaren 2024ko abenduaren 12ko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/2019 Zuzentaraua, 2024ko azaroaren 27koa, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa.

Hala, ur aratzean substantzia kimikoak eta kutsagarriak murrizteko xedez, zuzentarau berriak exijituko du hiriko hondakin-uretan mantenua eta mikrokutsatzaile gehiago ezabatzea, bereziki, farmazia-produktu eta produktu kosmetiko toxiketatik datozenak.

Horretarako, zuzentarau berri horren arabera, 1.000 biztanleri edo gehiagori dagokiena baino ahalmen handiagoa duten hiri aglomerazioek hemendik 2035era bitarte bigarren mailako tratamendua aplikatu beharko diete (materia organiko

biodegradagarria) hiriko hondakin-urei. Halere, hirugarren mailako tratamendurako epe eta atalaren harmonizazioan datza berritasuna (nitrogenoa eta fosforoa ezabatzea); izan ere, hurrenez hurren 2039rako eta 2045erako bermatu beharko da hori aplikatzen dela 150.000 biztanletik gorako ahalmena duten tratamendu-instalazio handietan, tarteko helburuak ezarrita: 2033a eta 2036a hirugarren mailako tratamendurako eta 2033a eta 2039a laugarren mailako tratamendurako.

Zuzentarauaren 3. artikulua ezartzen du zer kolektore-sistema eta zama kalkulatzeko sistema izan beharko dituen aglomerazio batek, eta zer epetan bete beharko duten hori hiri-aglomerazioek, biztanle-kopuruaren arabera ahalmena kontuan hartuta.

Zuzentarau berriaren arabera, Europar Batasuneko estatuak ezarri beharko dute udalerritik 2035a baino lehen egon beharko dutela konektatuta hiriko hondakin-uren kolektore orokorren sareetara. 1.000 biztanle baino gutxiagorako ahalmena duten hiri aglomerazioek, baldin eta ezin badira kolektore-sareetara konektatu, hiriko hondakin-uretarako bigarren mailako tratamendua eduki beharko dute gehienez ere 2035ean, horiek ingurumenara isuri aitzin.

8. artikulua laugarren mailako tratamendua deritzana ezartzen du, honela definitzen baita: hiriko hondakin-uren tratamendua, hiriko hondakin-uretan mikrokutsatzaileen sorta handi bat murrizten duen prozesu baten bitartez egina.

Farmazia-produktuetatik eta produktu kosmetikoetatik heldu diren hondakinak dira, gaur egun, laugarren mailako tratamendua egitea behar duten hiriko hondakin-uretan dauden mikrokutsatzaileen iturbururik handienetako bat.

Zuzentarau berriak aurrekari bat ezarri du ingurumen-kudeaketan, zeren farmaziaren eta kosmeti-

karen arloko industriei agintzen baitie hein handi batean finantza dezatela laugarren mailako tratamendurako hiriko hondakin-uren arazketa. Halatan, "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioarekin bat, lehenbizikoz, farmaziaren eta kosmetikaren arloko enpresek mikrokutsatzaileak ezabatzeak (laugarren mailako tratamenduak) dakarren kostuaren % 80 ordaindu beharko dute gutxienez ere, bai eta biltze- nahiz egiaztatze-kostuak eta Ekoizlearen Erantzukizun Zabaldua betetzeko beharrekoak diren bestelako kostuak ere.

Hori dela-eta, galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

1. Zer egoeratan daude gaur egun Nafarroako udalerrriak zuzentarau berriaren 3., 6., 7. eta 8. artikuluetan bigarren, hirugarren eta, kasua bada, laugarren mailako tratamenduetarako nahitaez bete beharreko zat ezartzen den hondakin-uren tratamenduari dagokionez?

2. Zer egoeratan daude gaur egun Nafarroako udalerrriak gutxienez ere 1.000 biztanlerako ahalmena duten hiri aglomerazioetan hondakin-urak jasotzeko, biltzeko eta, kasua bada, tratatzeko sistema indibidualak erabiltzeari dagokionez?

3. Gobernuak edo NILSAk ba al dute azterlanik, ikerketarik edo txostenik hiriko hondakin-urretan farmazia-produktuetatik eta produktu kosmetikoetatik heldu diren hondakinak egoteari dagokionez?

4. Nafarroako hondakin-uren araztegiatan egindako analisietan halako mikrokutsatzailerik hauteman al da? Zeinetan? Zer mailatan agertzen dira?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

